

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

#### **34/2020 Foru Agindua, otsailaren 13koa. Arabako Errioxako eremu funtzionaleko lurralde plan partziala berrikusteko prozedura hastea**

##### AURREKARIAK

Lehenengoa. Abenduaren 28ko 271/2004 Dekretuaren bidez, behin betiko onetsi zen Guardiako (Arabako Errioxako) eremu funtzionaleko lurralde plan partziala. Hartan, garatu egiten ziren EAeko Lurralde Antolamendurako Zuzentarauak, otsailaren 11ko 28/1997 Dekretuaren bidez behin betiko onetsiak, eta zuzentarueta ezarritako berariazko antolamendu irizpideak zehaztu ziren Guardiako (Arabako Errioxako) eremu funtzionalerako.

Plan horrek ondoko udalerrriak hartzen ditu barnean: Mañueta, Kripan, Elciego, Bilar, Kripan, Bastida, Guardia, Lantziego, Lapuebla de Labarca, Leza, Moreda, Navaridas, Oyón-Oion, Samaniego, Eskuernaga eta lekora.

Bigarrena. Irailaren 28ko 251/2010 Dekretuaren bidez, behin betiko onetsi zen Guardiako (Arabako Errioxako) eremu funtzionaleko lurralde plan partzialaren lehenengo aldaketa, helburu nagusi honekin: upeltegiei buruzko araudia (lurzoru urbanizaezina zaindu eta babesteko helburua zuena) eskualde hartako mahasgintza eta ardogintza sektorearen egoera sozioekonomiko eta funtzionamendura moldatzea.

Hirugarrena. Irailaren 18ko 134/2018 Dekretuaren bidez, Guardiako (Arabako Errioxako) eremu funtzionaleko lurralde plan partzialaren 2. aldakuntza onetsi zen, paisaiaren zehaztapenekin loturikoa.

Laugarrena. 2016ko maiatzean, Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailak memoria bat egin zuen, zeinean azaldu baitzen Guardiako (Arabako Errioxako) eremu funtzionaleko lurralde plan partzialeko zehaztapenen betetze maila, bai eta identifikatutako desdoitzeak arindu edo konpontzeko beharrezkoak diren proposamenak ere.

Bosgarrena. Hura indarrean jarri zenetik ia hamabost urte igaro direlarik, beharrezkoa da Guardiako (Arabako Errioxako) eremu funtzionaleko lurralde plan partziala berraztertzea, egoera ekonomiko berriaren eta aldi horretan sortutako beharrian berrien ondoriozko egoerari erantzuteko. Oro har, aldi horretan gertatutako inguruabarrek behartu egiten dute planean ezarritako antolamendu irizpide orokorrak aldatzera.

Plan honen berrazterketa gertatu, izapidetu eta onestean, bultzatu eta erraztuko da eragindako administrazio publikoen, eragile sozioekonomikoen eta herritarren parte-hartzea. Horretarako, parte-hartze publikorako programa bat diseinatuko da, zeinean helburuak, estrategiak eta parte-hartzea ahalbideratzeko nahiko diren mekanismoak ezarriko baitira, eta etengabe eguneratuz eta aldatuz doazen inguruabarretara moldatuko da.

Seigarrena. Guardiako (Arabako Errioxako) eremu funtzionaleko lurralde plan partzialaren berrazterketa Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduko zuzentaru berrietara moldatu beharko da, zeinak uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez onetsi baitira behin betiko.

Zazpigarrena. Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak lurralde plan partzialak sortzeko eta finantzatzeko erabakitako lankidetzarekin jarraitzeari begira, administrazio hauek laster lankidetzaz hitzarmen bat izenpetuko dute Araba Erdiguneko eta Guardiako (Arabako Errioxako) lurralde plan partzialak berraztertze dokumentu bat sortzeko.

Hitzarmen horren indarrez, Arabako Foru Aldundiak Guardiako (Arabako Errioxako) lurralde plan partziala egiteko eta izapidetzeko ardurua hartuko du.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Guardiako (Arabako Errioxako) eremu funtzionaleko lurralde plan partzialaren 4.2 artikuluan, adierazten da lurralde plan partzial horren berrazterketan jarraitu beharko zaiola maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde antolamendurako Legea) 13. artikuluan hura formulatu, sortu eta onesteko ezarritako prozedurari.

Bigarrena. Maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak (Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Legea) bere 13.1 artikuluan xedatzen du lurralde plan partzialak formulatzeko ekimena Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari (gaur egun, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari) nahiz foru aldundiei dagokiela.

Beste alde batetik, maiatzaren 31ko 4/1990 Legearen 13.2 artikuluan xedatzen da ekimena hartzen duen administrazioak (autonomia nahiz foru administrazioa dela), besteari eskatu beharko diola plana idazteko beharrezkotzat jotzen duen informazio orokorra, bai eta eragindako zonarekin loturiko haren aurreikuspenei eta ekintza programei buruzko espezifikoa ere.

Halaber, helburu horietarako beharrezkotzat jotzen duten informazioa eskatuko diete eragindako udalei.

Estatuaren administrazioaren aurreikuspenei eta ekintza eta inbertsio programei buruzko informazioa autonomia erkidegoko Gobernuaren Ordezkaritzari eskatuko zaio, betiere Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailaren bitartez.

Otsailaren 18ko 4/2005 Legean (Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea) jasotzen diren xedapenak gauzatu ahal izateko, informazioa pertsoneri buruzkoa denean, datuak sexuaren arabera bereizirik bidali beharko dira.

Hirugarrena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan, zeinean arautzen baita herritarren parte-hartzea lege mailako arauak eta erregelamenduak sortzeko prozeduran, ezartzen du lege edo erregelamendu proiektua edo aurreproiektua sortu baino lehenago kontsulta publikoa egin behar dela.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onesten baita xedapen orokorrak gertatzeko prozedura, bere 9. artikuluan, Arabako Lurralde Historikoaren araugintza ekimenei dagokienez, hainbat kontu arautzen ditu, hala nola kontsulta horien edukia, haien iraupena eta egiten diren web atari mota.

Hala, xedapen arauemailearen aurreproiektua edo proiektua egin baino lehenago, sail eskudunak kontsulta publikoa egingo du, honako alderdi hauen gaineko iritzia eskatzeko herritarrei eta ordezkaritasun handieneko erakundeei:

- a) Ekimen horrekin zer arazo konpondu nahi den.
- b) Ekimen hori onesteko beharra eta egokitasuna.
- c) Xedapenaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, araugintzakoak zein araugintzaz bestelakoak.

Aurretiazko kontsulta bide telematikoetatik egingo da, Arabako Foru Aldundiaren web orriaren bitartez.

Kontsulta publiko horren epea gehienez hamabost egun naturalekoa izango da, hura Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratzen den egunetik hasita.

Laugarrena. Plana formulatzeko ekimena hartzeko eskumena duen organoa Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua da, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketari, Funtzionamenduari

eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan eta Diputatu-  
tuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuak (Ingurumen eta Hirigintza Sailaren  
egitura organikoa eta funtzionala onesten duena) 17. artikuluan xedatutakoa aplikatuz.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenez baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arabako Errioxako eremu funtzionaleko lurralde plan partziala berraztertzeko  
prozedura hastea.

Bigarrena. Eusko Jaurlaritzaren sailen bitartez, autonomia erkidegoko administrazioari es-  
katzea plana idazteko beharrezkotzat jotzen duen informazio orokorra, bai eta eragindako zona-  
rekin loturiko haren aurreikuspenei eta ekintza programei buruzko espezifikoa ere. Informazioa  
gehienez ere bi hilabeteko epearen barruan eman beharko da.

Hirugarrena. Eragindako udal eta kontzejuei eskatzea helburu horiekin beharrezkotzat jotzen  
duten informazioa. Gehienez ere bi hilabeteko eperen barruan eman beharko da.

Laugarrena. Lurralde antolamenduaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Sai-  
laren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren Ordezkaritzari eskatzea Estatuaren  
administrazioaren aurreikuspenei eta ekintza eta inbertsio programei buruzko informazioa.  
Gehienez ere bi hilabeteko eperen barruan eman beharko da.

Bosgarrena. Arabako Foru Aldundiaren sailei eskatzea plana idazteko beharrezkotzat jotzen  
duten informazio orokorra, bai eta eragindako zonarekin loturiko haien aurreikuspenei eta  
ekintza programei buruzko espezifikoa ere. Informazioa gehienez ere bi hilabeteko epearen  
barruan emango da.

Seigarrena. Arabako Foru Aldundiaren webgunearen bitartez kontsulta publikoa egitea,  
gehienez ere hamabost egunez. Kontsulta horretan, herritarren eta eragina jasan dezaketen  
antolakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoez,  
hura onesteko beharraz eta egokitasunaz, xedapenaren helburuez eta ordezkoko konponbideez,  
araugintzakoak zein araugintzaz bestelakoak.

Zazpigarrena. Agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Foru agindu honen aurka ezin daiteke errekurtsorik jarri, Arabako Errioxako eremu funtziona-  
leko lurralde plan partzialaren berrazterketa onesteko prozeduraren barruko izapide bat da eta.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 13a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*  
**JOSEAN GALERA CARRILLO**